







Energia kontsumoa EAEn



Energiaren kontsumoa EAEn

Energia elektrikoa

Euskadin kontsumitutako elektrizitateak %1,6 egin zuen behera irailean, 2016. urteko hil berean izandakoaren aldean. Arloka, industrian %7 igo zen; etxekoan, berriz, %9,6 jaitsi zen eta hirugarren sektorean edo zerbitzuetan %13,2.

Iraiera arte metatutako kontsumoak %1,9 egin zuen gora, 2016ko epealdi berarekin alderatuta; etxeko sektorean %2,6 jaitsi zen, zerbitzu arloan %0,7 eta industrian, ordea, %3,9 egin zuen gora. Urte honetan, industrian gora egin duten sektoreak, besteak beste, hauek izan dira: kimikoa (+%7,5), zementua (+%6,6), beiragintza (+%6,1) eta siderurgia zein galdagintza (+%5).

Gas naturala

Irailean, gas naturalaren guztizko kontsumoak %27,3 egin zuen gora, 2016ko irailean izandakoarekin konparatuta. Zentral termikoena %193 igo zen eta gainerako sektoreena %8,9.

Iraiera arte metatutako kontsumoak %7,3 egin du gora, aurreko epealdiaren aldean, (+%37,8 CCTT-n eta +%3 gainerako sektoreetan).







Erregaiak garraioan

Abuztuan, garraioan erregaien kontsumoak %7,3 egin zuen gora, 2016. urteko hil berean izandakoarekin alderatuta.

Abuztura arte metatutako kontsumoa %4,9 igo zen, 2016koarekin erkatuta. Hala, gasolinen kontsumoak %4,3 egin zuen gora eta A gasolioarenak %5.

Iturriak: EEEK prestatua, CORES, Enagás eta Iberdrolaren datuetan oinarrituta.

Kanpoko Egoera



EAEtik kanpoko egoera

Petrolioaren kontsumoa munduan
 Irailean, munduan petrolioaren kontsumoa egunean 98,85 milioi kupel izan zen (2016ko irailen izandakoaren aldean, %1,7 igo zen). Epealdi berean, Europar Batasunak %1,7 egin zuen gora kontsumoak, 14,8 Mbpd kantitatera iritsiz; Txinan %4 igo zen, eta 12,7 Mbpd kontsumitzera heldu zen eta AEBetan %1 igo zen, eta 20 Mbpd kopuruan kokatu zen. Munduan, oro har, azken 6 hilabeteetan, eguneroko petrolioaren batez besteko kontsumoa %1,5 igo da, Txinan %3,5, AEBetan %1,1 eta Europar Batasunean %1,9.






Energiaren kontsumoa Espainian
 Espainian, gas naturalaren kontsumoak %13,1 egin zuen gora irailen, 2016ko hil horretan izandakoarekin alderatuta. Irailera arte metatutako kontsumoak %7,5 egin zuen gora.

Elektrizitatearen kontsumoari dagokionez, behera egin zuen irailen, %2,9, 2016ko irailen izandakoaren aldean. Irailera arte metatutako kontsumoa iazko epealdi berean izandakoaren bertsua izan da.

Espainian, errepideetan erregaien kontsumoak %1 egin zuen gora abuztuan, 2016ko hil berean izandakoarekin konparatuta; gasolinaren kontsumoa %1,7 igo zen eta gasolioena %0,8. Abuztura bitartean metatutako kontsumoak %2,5 egin zuen gora, 2016. urteko epealdi beraren aldean. (%2 igo zen gasolinena eta %2,5 gasolioena). Bestetik, hegazkinetan erabiltzen den kerosenoaren kontsumoak %5,8 egin zuen gora abuztuan, eta abuztura arte izandako kontsumo metatua %8,9 igo zen, 2016ko epealdi berarekin erkatuta.

Iturriak: REE, CORES, Enagás, EEEK prestatua, AIE eta EIAREN datuetan oinarrituta.

Energiaren prezioa



Energiaren prezioa

Petrolioaren prezioa

Brent petrolio upelaren batez besteko prezioa 55,2\$ (46,3€) izan zen irailean. Urtebetean prezioak %21,7 egin zuen gora (%22,5 eurotan).

Elektrizitatearen prezioa

OMIE eguneroko merkatuan, Espainian, elektrizitatearen prezioa 49,2€/MWh izan zen irailean; duela urtebete zegoenaren aldean, %12,8 egin zuen gora.

Gas naturalaren prezioa

Alemanian, inportazioaren batez besteko prezioa 16,3€/MWh izan zen abuztuan, eta %15,5 igo zen, 2016ko hil berean izandakoarekin erkatuta. Irailean, EGIX-en prezioa 17,4€/MWh izan zen (2016ko irailean izandakoarekin alderatuta, %13 igo zen). Spot merkatuetan, irailean, Henry Hub-en prezioa 10,2€/MWh izatera iritsi zen eta Japonian 16,6€/MWh, (2016ko hil horretan izandakoaren aldean, %0,3 eta %5,7 egin zuten behera, hurrenez hurren).

Erregaien prezioa

EAEn, irailean, gasolioaren prezioa 1,09€/l izan zen (urtebetean %7,4 igo da), eta gasolinarena 1,2€/l (urtebetean %5,8 egin du gora).

CO₂-aren prezioa

CO₂-aren EUA baimenaren etorkizuneko prezioa 6,8€/t izan zen irailean, eta urtebete lehenago izandakoarekin konparatuta, %62,2 igo da.

Iturriak: EEEK prestatua, OMIE, CESUR, EEX, Japoniako Industria Ministerioa eta BAFaren datuetan oinarrituta.